

## FHV - VORARLBERG UNIVERSITY OF APPLIED SCIENCES, DORNBIRN

Dornbirnen, Austrian, FHV University of Applied Sciencesen euki genuen gure Erasmusa egiteko eta gozatzeko aukera, Vorarlberg izeneko eskualde batean kokatuta dagoen herri txiki batean.

Bertan, leku desberdinetako jendea ezagutzeko aukera izan genuen. Atzerrian ikasten genuen ikasleen kopurua bertakoena baina handiagoa zen. Gaztelera hitz egiten zuen jende asko zegoen arren, gure arteko komunikazioa gehin bat ingelezkoa zen. Bertako unibertsitateari esker eta Erasmus koordinatzaileek antolatutako “Welcome week” asteko ekintzei esker, elkar hobeto ezagutzeko aukera izan genuen. [Unibertsitatearen web orrialdean](#) Erasmus ikasleen iritzia irakurtzeko aukera izango duzue. Herrian antolatzen diren ekintzak ere batu gintuzten, bai egunean zehar eta bai gauean zehar egiten direnak. Gainera, unibertsitateko ikasle kontseiluak oso sarri jarduera desberdinak antolatzen ditu.

Lehenengo lauhilekoan egon ginela kontuan izanik eta eguraldi ona egin zigula kontuan izanik, bizikletak alokatu genituen. Unibertsitateak zure egunerokotasunean behar izango dituzun gauzen zerrenda bat emango dizu, “A-Z list” deitzen diotena. Bertan turismoari, osasunari, supermerkatuei, denbora libreari, alokairuei... buruzko informazio ordenatua emango dizu, egunerokotasuna errazteko intentzioz. Bizikletaz gain, garraio publikoa oso ondo antolatuta duen herrialde bat da Austria. Prezio onean urte osoko bonoa atera daiteke, trena eta autobusa erabiltzeko gaitasuna ematen dizuna eskualde osoan zehar.

Unibertsitatean onartua izan zaren momentutik, koordinatzaileak zurekin harremanetan jarriko dira. Alojamentuari dagokionez, dituzun aukera guztien berri emango dizute eta zerbait sinatuta eduki arte egongo dira laguntzeko prest. Hiru residentzia nagusi daude inguruan, bi Dornbirnen eta bat Hohenems izeneko herri batean. Gu Hohenemseko residentzian egon ginen. Toki lasaia dela esan dezakegu, garraio publikoari esker oso ondo komunikatuta dagoena nahiz eta ez egon Dornbirnen bertan. Gure lauhilekoan jende gehiena Kolpinhaus-en egon zen, Dornbirnen kokatuta dagoen residentzian. Bertara iristeko moduari dagokionez, unibertsitateak informazio guztia emango dizu. Hegaldia edo bidai pixkat bat antolatuta duzunean, bertako garraioari buruzko informazio detailatua emango dizu. Gu Bilboko aireportutik Zurichera joan ginen eta Zurichetik Hohenemsera iristeko informazio dena eman ziguten. Oso jende jatorra da, papeleo dena errazten duena eta beti laguntzeko prest dagoena.

Ikasturtearen zailtasunari dagokionez, bertako sistema enfokatuagoa dago atal praktikoetan eta teoria klaseetan emandako dena proiektuen zein aurkezpenen bidez ebaluatzen dute. Pisu asko duten proiektuak diren arren, merezi duen zerbait da.

Laburbilduz, oso gomendagarria iruditzen zaigun esperientzia bat da Dornbirneko unibertsitatea. Akademikoki zein pertsonalki hazteko aukera ematen duen esperientzia, kultura ezberdineko jendearekin bizitzeko eta gai ezberdinei buruzko ikuspuntu desberdinak edukitzeko aukera ematen duena.

Iñigo López de Arana Merino  
Arritxu Etxeberria Arrondo